



Lan poltsa: Berbaizu Euskara Elkartea 2022-2023

Arloa: Euskalgintza

Eskaintzaren deskribapena:

Berbaizu Euskara Elkartek hainbat zerbitzu eskaintzen ditu eta lan poltsa bat zabaldu nahi du bere proiektu berriak diseinatu eta daudenak aurrera eramateko: Ikasleen euskara batzordeak, Euskaraldia, ikastetxeekin bilerak, bazkideekin bilerak...

Lan poltsa esparruak: Bi lanpostu eskaintzen ditugu, irailtik aurrera lanean hasteko. Lanpostuak funtzioen arabera banatu ditugu:

- **Dinamizazioa:** Berbaizu Euskara Elkartek dituen proiektuen dinamizatzailea. Deustualdeko Ikastetxeen Unibertsoa (ikastetxeen arteko bilerak hilean behin) eta euskara batzordeak koordinatuko ditu (4 ikastetxetan sortu eta jarraipena eman). Horrez gain, harremanetan egongo da Berbaizuren bazkideekin eta ekitaldien antolaketan lan egingo du. Deustuko eskoletan zein bulegoan egingo luke lan egunean 5 orduko jardunaldiarekin.

Baldintza espezifikoak: Aisialdian esperientzia (titulua izatea meritutzat hartuko da), sexu-delituen ziurtagiria izatea.

- **Kudeaketa:** Berbaizu Euskara Elkarteko bulego lanetarako langilea. Jardunen artean leudeke: elkartearen kudeaketa, bazkideen arreta zerbitzua, dirulaguntzen eskaerak, diruzaintza eta administrazio lanak, materialaren salmenta, diru iturri berrien kudeaketa etab. Langileak egunean 5 orduko lanaldia izango luke eta Zuzendaritza Batzordearen laguntza edukiko luke.

Baldintza espezifikoak: Informatikako oinarrizko programak erabiltzeko gaitasuna, kontuak eta datu baseak egiteko gaitasuna, zailtasunak ebazteko gaitasuna, koordinazio eta talde lanerako trebetasuna.

Baldintza orokorrak:

- Euskara maila ona izatea, ahoz zein idatziz.
- Euskalgintza ezagutzea.
- Jendaurrean aritzeko eta harremanetarako gaitasuna.
- Komunikatzeko gaitasuna.
- Talde- dinamizazio eta antolaketarako gaitasuna.
- Hileko azken asteartean, arratsaldeko 18:00etan, biltzeko denbora.

Aintzat hartuko dugu:

- Berbaizuko bazkidea izatea.
- Deustualdea ezagutzea.
- Emakumea eta gaztea izatea.
- Erabakiak hartzeko gaitasuna edukitzea.
- Berrikuntzarako eta sormenerako gaitasuna edukitzea.
- Kotxea eta gidabaimena izatea.

Interesa izanez gero, **bidali zure curriculum**a berbaizuko@gmail.com helbidera, **uztailaren 31 baino lehen** eta zehaztu **zein esparrutan** duzun interesa!

Deustun, 2022eko uztailaren 6an